

'Jose Antonio Aranaren Biblioteka' katalogoa aurkeztu du Euskaltzaindiak

Gernika-Lumoko euskaltzain emerituaren bibliotekaren katalogazioa egin du Azkue Bibliotekak, ondarea katalogoan batuz.

OIHANA CABELLO

Jose Antonio Arana Martijaren bibliotekaren katalogoa aurkeztu zuen atzo Euskaltzaindiak, Akademiak Bilbon duen egoitzan. 'Jose Antonio Aranaren Biblioteka' du izenburu katalogo horrek, eta aurkezpen ekitaldian izan ziren Arana Martija bera, Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Patxi Uribarren euskaltzaina zein Euskaltzaindiaren bibliotekako langileak.

5.657 erreferentzia biltzen ditu Arana Martijaren katalogoak, Humanitateen esparrukoak batez ere: historia, kultura, musika, erlijioa, zuzenbidea, literatura edota artea.

Liburutegiaren dohaintza

Bere liburutegi pertsonalaren dohaintza egin zion gernikarrak Euskaltzaindiari 2007ko irailaren 28an. Liburutegi horretan hainbat urtetan bere lanak egiteko erabili dituen liburuak eta argitalpenak daude. Horiek guztiak hartu eta katalogazio lanak egin dituzte Euskaltzaindiako Azkue Bibliotekaren zerbitzuek.

Orain, katalogoaren argitalpenarekin, irakurleen eta ikertzaileen eskura jarri dute ondare guzti hori.

Gehiena euskaraz

Erreferentzia guztien artean, gehienak monografiak edo fitxa analitikoak direla azaldu du Euskaltzaindiak. Hala ere, badaude aldizkariak, mapak, kartelak, musika inprimatua eta bestelakoak ere.

Gaiei dagokienez, Humanitateen esparrukoak dira gehienak, Euskal Herriarekin eta bereziki Gernika-Lumorekin harremana dutenak. Arana Martijaren egiletza edo lankidetza dutenak 256 dira; antzinakoak ~1820 baino lehenagokoak ~ 65 dira, eta herena baino gehiago, 2.183, euskaraz daude.

Liburuak 'egile-izenburua' ordena jarraitzen duela zehaztu du Euskaltzaindiak, eta erreferentziek identifikatzeko behar beste datu bibliografiko dituztela.